

Sagardoa irudietan

Gure arbasoen ohiturei eutsi eta ez galtzeko asmoarekin, Astigarragako Zipotza Kultur Elkarteak bideo bat egin du. Herriaren historiaz aparte, sagardoaren prozesu guztia bildu dute. Oraingoz, 500 ale bakarrik kaleratuko dituzte eta eskuratu nahi duenak elkartearen aurkituko ditu salgai. Gidoilaria, Antxon Agirre Sorondo izan da, eta Xabier Amurizak jarri du abotsa. Sebastian Lizaso bertsolariak, berriaz, bertso batzuk kantatzen ditu.

OHITURA ZAHARRAK GOGOAN

KARMEL ELIZARAN

SAGARDOAK BADU BIDE-OA, ASTIGARRAKO ZIPOTZA KULTUR ELKARTEAK, BESTE EKINTZA BATZUEN ARTEAN, GURE ARBASOEN OHITURAK KONTUAN EDUKIZ SAGARDOAREN HISTORIA IRUDIETAN JASOTZEA ERABAKI DU.

Elkarteko kide batek adierazi duen bezala, bideo honen bidez «sagardoa ohitura kulturala dela erakutsi nahi dugu. Bestetik, Euskal Herriko produktua denez, ezagutarazten lagunduko dugu».

Joan den urtean hasi ziren proiektu honekin eta aurtien amaizu dute. «Oso kontentu geratu gara emaitzarekin. Bideoa oso interesgarria dela iruditzen zaigu».


Bideoa, Astigarrako historiarekin hasten da. «Hasieran herriko historia biltzen dugu eta gaurko gauza berak erakutsiz amaitzen dugu. Honen barmuan, sagardoaren historia sartu dugu. 1595eko idatzi batean agertzen da Astigarragan sagardoa egiten zela eta kanpora ematen zela saltzeko».

Sagardoaren elaborazioa

Historia kontatu ondoren, sagardoaren elaborazioarekin jarraitzen du. «Sagarrondoak loratzen, bilkera eta txikitu eta zapaldu ondoren, botilaratzea ikusten da. Hurrez, prozesu guztia biltzen ditugu».

Irudiak, herriko sagardotegi desherdinetan lortu dituzte. Azkenik, sagardotegietako giroa ere agertzen da.

Bilduma honetan, Domingo Anna eta Silvana Huegun dietista azpizturren intziak azaltzen dira.



Bideoa sagar-dantzarekin amaitzen da, herriko dantza taldeak dantzatua. «Nire intziz, sagardoa dantza bat izateak, gauri batean behintzat, ekonomikoari ze garrantzia izan zuen adierazten digu. XVI. mendean, adibidez, konertzializazio handia zegoen. Herriko zaharrek gogoratzen dutenez, arrantzaleak izaten ziren herriko Pasaiaiko portura eramaten zutenak».

Sagardoaren museoa

Bideo barmuan Astigarran Sagardoaren Museoa eraikitzeko asmoak ere azaltzen dituzte. Zipotza elkarteko kide honek adierazi duenez, Astilur taldea ahalaginak egiten ari da museoa berreskuratzeko.

Azkenik, Amuriza eta Lizaso bertsolariek hartu dute parte bideo honetan. Amurizaren aholkariak kontaktatzen du testua eta Lizaso, berriaz, bertsoan ari zaigu.

Gidoilaria Antxon Agirre Sorondo antropologoa izan da.

500 ale

Oraingoz behintzat 500 ale kaleratzeko asmotan dira. «Ez dugu aurkezpenarik egiteko asmoa. Norbaitek eskuratu nahi badu, Zipotza Kultur Elkartearen jirako ditugu salgai».

Proiektua hau aurrera eramateko zenbait laguntza ere izan dute. «Gure asmoa bideo xume bat egitea izan zen, ikasleetan eta elkarteetan banatzeko, baina konturatu ginen proiektua handitzen joan zela eta azkenik eskutik joan zaigu. Horregatik laguntzak eskatu genituen, eta baita lortu ere».

Laguntzak, Gasteizko Gobernuak, Astigarrako Udalak eta Kutxak eman dizkie.

...

GURUTZETA

Egunero irekia, igandeetan ezik.
Ostegunetako tentazioa....

Sagardo Naturala

Baina...adi!

GURUTZETAKO MENUA 1.500 pta.

• Makailu tortilla • Txuleta • Gazta eta intxaurreak • Sagardoa txotxetiki...

Ergobiako Industrialdea, 59 • Tel. 55 22 42 • Astigarraga